

Ireber Arotzena Aranburu

B maila • 3 saria



Kaixo! Ireber Arotzena Aranburu naiz, Mutiloan bizi naiz nire familiarekin baina nire eguneroko bizitza Beasainen egiten dut. 2004ko maiatzaren 1ean jaio nintzen eta betidanik, Andramendi ikastolan ikasi dut. Gaur egun, DBHko 4. maila egiten ari naiz bertan.

Kirolaren maitalea naiz, asko gustatzen zait kirola egitea. Izugarri gozatzen dut futbolean jokatzu eta partiduak ikusiz. betidanik jolastu izan dut eta nire pasioa da. Ez dut irakurtzea atsegin, bina idaztea bai. Papela eta arkatza “arma” garrantzitsu bat dira, istorio ikaragarriak idatzi daitezke, eta horrela idazlea eta irakurlea bertan murgildu. Guzti honez gain, nire ustez oso garrantzitsua da “arma” hauek modu egokian erabiltzea, mezu positibo batekin eta balore onak transmitituz. Horregatik saiatzen naiz nire idazlanen bidez mezuak zabaltzen eta jendea konzientziatzen. Ea aurtengo nire idazlanaren mezua iristen zaizuen!

HISTORIAREN JIRABIRAK

Botoa ematetik atera berria naiz. Historian lehenengo aldiz, lortu dugu! Harrigarria da! Denbora luzez borrokatu ondoren, lortu dugu!

Nire lagunak eta nik parta hartu dugu lehen aldiz demokraziaren historian. Emozio asko sentitu ditugu: urduritasuna, euforia, adrenalina, emozioa... baina emozio “positibo” guzti hauek bizi izan ditugun arren, beldurtuta ere egon gara, udaletxetik atera ondore gerta zitekeenagatik! Izan ere, sinesgaitza badirudi ere, jende asko emakumeen eskubideen aurka dago oraindik.

Gorabehera asko izan ditugu puntu honetara iritsi arte, jende askok ez zuelako begi onez ikusten, guk, emakumeok, gure eskubideengatik borroka egitea. Agintariek laguntzen ez zigutenez, azkenean justizia gure kasa egitea lortu dugu.

Nire lagun feministek eta nik asko borrokatu dugu honaino heltzeko. Honela hasi zen dena duela urte batzuk...

Gizonezkoek erabat agintzen zuten gizarte honetan, garbi geneukan emakumeok ere gure lekua aldarrikatu behar genuela. Horrexegatik erabaki genuen asanblea edo talde feminista bat sortzea: emakumeoi zegokiguna eskatu eta aldarrikatzeko; tartean, jakina, demokrazian parte hartzeko boto-eskubidea.

Hasiera batean, osatu genuen talde hura lau pertsonaz bakarrik osatuta zegoen.

Susan de Beauvoir, nire umetako laguna, taldeko gazteena zen. 20 urte bakarrik zituen arren, arduratsua eta nahiko heldua zen. Oso azkarra eta feminista izan zen txikitatik, eta taldea sortzeko ideia ere berea izan zen. Hasieratik konbentzitu ninduen ibilbide hau berarekin egiteko.

Kathrine Switzer, ez zen hitz askoko neska, baina hitz egiten zuenean gauza garrantzitsuak esaten zituen. Ez zuen bere bizitza pertsonalari buruz hitz egiten: 26 urte zituen eta oso korrikalari ona zen. Espero dut etorkizun batean, gurekin gehiago irekiko dela lagunartean.

Margot Curiek, 24 urte zituen taldea sortzean, eta oso dibertigarria zen. Hizkuntza asko hitz egiten zituen: frantsesa, alemaniera, errusiera, turkiera, gaztelania, eta nola ez, ingelera). Hizkuntza asko jakitearen abantaila aprobeztatzea erabaki genuen hasieratik, gure mezua leku guztietan entzun eta gehiago zabal zedin.

Eta azkenik, ni nengoen: Margaret Campoamor. Mentalki pertsona indartsutzat daukat nire burua, eta dibertigarria naizela uste dut. Txikia nintzela asko sufritu nuen, zortzi urterekin umezurtz gelditu nintzelako, eta ordudanik bizitzari nire kasa aurre egin behar izan diodalako. Hori dela eta, 22 urte bakarrik ditudan arren, oso heldua naizela uste dut. Susanek eta biok antz handia dugu izaeraz, eta horrek ere asko lotu gaituela esango nuke.

Esan bezala, emakumeok jasaten ditugun diskriminazio eta egoera bidegabeei aurre egiteko sortu genuen taldea Susanek eta biok. Bere ideari jarraituz, emakumezkoen eskubideak aldarrikatzeko xedea jarri genuen helburu nagusitzat. Arazoa, ordea, kantitatea zen, talde batean bi bakarrik egotea nahiko kopuru eskasa zela iruditu zitzaigulako.

Egun batean, Wellintongo zentroan hartua genuen lokalean bi emakume agertu ziren; Kathrine eta Margot, eta gure taldekideak izan nahi zutela esan ziguten. Egia esan, aurrez, behin edo bitan kalean kusi genituen, eta bistaz bakarrik ezagutzen genituen. Hala ere, ez genuen bi aldiz pentsatu, eta talde bikain bat osatzeko martxan jarri ginen. Ordudanik, denbora asko pasa dugu batera eta nahiko lagun onak egin gara.

Hasiera batean, ez genion inorri ezer esan, isilean mantendu genuen asmoa zalapartarik ez sortzeko. Bi aste lanean pasatu ondoren, artikulua bat eta elkarrizketa bat argitaratzea lortu genuen egunkari lokal batean. Albiste berritzaile bat zenez, mundu guztian zehar zabaltzen zen, eta nahi genuena lortu genuen, entzunaraztea, eta gure mezua mundu guztian zehar zabaltzea. Egia esan, bat batean etorri zitzaigun guztia, ez genuelako espero hainbeste zabaltzea, hau da, ez genuen aurreikusi.

Horrek, ondorioak eragin zituen. Jende asko (nola ez, gizonezkoak ziren agintari kontserbadoreek bultzatuta), gure aurka altxatu zen, manifestazioak egin zituzten gure aurka, legeak berregiten saiatu ziren gu isilarazteko eta hiltzeko eta eraso egiten ziguten...

Esaterako, behin lan egiten genuen eta denbora gehien pasatzen genuen lokala erre zuten. Zorionez, ez geuden bertan, elkarrizketa bat zela eta, herritik kanpo geudelako elkartasuna adierazten zigun kazetari batekin. Baina zoritxarrez, lanerako material guztia erre zen, eta lokalik gabe gelditu ginen.

Hala ere, ez genuen amore eman, eta ez genuen burua jaitsi. Jaso genuen eraso hark jende gehiago gure alde jartzea ere eragin zuen. Baina aldi berean, egia zen ere jende askok baztertu egiten gintuztela; gure lehengo lagunak zrenek jada ez ziguten begiratu ere egiten, eta gure famliako batzuek ere ez zuten ezer jakin nahi gutaz.

Hori dela eta, oso zaila egin zitzaigun lokal berri bat lortzea, ez zigutelako lokalik saldu nahi, eta gertukoenak ere ez zeudelako prest beraien izenean guretzat lokala erosteko. Zorionez, azkenean, Susanen amak lagundu zigun; bera emakume alarguna eta independentea zen, eta betidanik oso izaera feminista zeukan. Beraz, lokal bat erosi zuen bere izenean.

Zorionez, sufritu genuen guztiaren ondoren, taldeko kideen kantitatea asko handitu zen, eta egiten genituen manifestazio eta ekintzak geroz eta arrakastatsuak ziren! Gainera, jende gutxiagok egiten zituen kontra-manifestazioak.

Lanean urtebete inguru pasa ondoren, hauteskunde orokorretan botoa ematen saiatzeko plan bat eratu genuen: oso erraza zen. Udaletxean sartuko ginen jende gutxien zegoen orduan; barruan, bozkak jasotzeko jendea gure aldekoa izango zela esana ziguten, beraz gure bozkak han sartu eta listo! Huraxe izango zen plana. Zalena sartu ahal izatea eta gure bozkatzeko plana ez zabaltzea zen, izan ere, bozkatzera joatean aukera handia zegoen gurea aurka oraindik ere zeudenak batu eta gu handik bidaltzeko; eta mezu hura zabaltzen bazen, jende asko joango zen hara guk ez bozkatzeko.

Eguna iritsi zen, baina guztia gaizki atera zen. Norbaitek bozkatzera gindoazela filtratu zuen, eta beraz, kontra zegoen jende asko guri aurka egiteko prestatu zen. Hala ere, ez genuen amore eman eta udaletxean sartzen saiatu ginen. Ez genuen lortu, eta udaletxe sarrerako eskaileretatik pasatzea ez genuen lortu. Denetik jasan genuen! Jipoiak, irainak...

Azkenean, polizia etorri zen, eta eraman egin gintuzten, ustez egoera urrunago joan ez zedin, baina polizia-etera heldu ginenean, izenak eta gure datuak hartu zituzten! Laurok harrituta gelditu ginen eta harrigarria zen: gu ginen biktimak, guk jaso genituen eraso eta irainak, baina euren begietara gu ginen errudunak! Zera esan ziguten, probokatzera joan ginela eta hobe zela gauzak zeuden bezala uztea, bere onean: emakumeon betebeharra umeak izatea, senarra zaintzea, garbiketa lanak egitea... zirela azpimarratu ziguten, eta benetan harrigarria izan zen! Momentu hori nire buruan oso markatuta gelditu da ordundik.

Hauteskundeak lau urtez behin zirenez, hurrengoetarako itxaron beharra izan genuen, baina ez pentsa lau urte horietan isilik edo izkutuan ibili ginenik: guztiz aurkakoa! Manifestazioak eta ekintzak egiten jarraitu genuen: hitzaldiak, protestak, grebak, aldarrikapenak...

Denbora asko izan genuen hurrengo hauteskundeetarako prestatzeko, eta urte guzti horietan zehar, elkarrekin hazi ginen, eta horrek asko elkartu gintuen. Indarra hartzen ari ginen, eta gure ekintzei esker, gizartea pixkanaka kontzientzia hartzen ari zen. Geroz eta kide gehiago ginen eta bozkatzeko eguna iristeko geroz eta gutxiago gelditzen zen, iristen ari zen... bazetorren beste aukera bat!

Iritsi zen eguna: 1953ko azaroaren 3a! Ziur geunden historian oso garrantzitsua izango zela egun hura, oraingoan ongi aterako zelako! Egun handia izango zen, gauzak aldatuko ziren eguna.

Funtsean, plana duela lau urteko berdina zen: udaletxean sartzea lortzea, eta behin barruan, bertan geneuzkan laguntzaile infiltratuen laguntzarekin, bozak kaxetan sartzea. Oraingoan, ordea, gauzak errazagoak izango ziren; izan ere, gure mezu eta ekintzei esker, gizartea lau urte horietan aldatuz joan zelako, eta jende askoren babesak jasotzen ari ginelako. Egiari zor, ez geunden guztiz baztertuak, nahiz eta gure aurkako jendea oraindik ere bazegoela jakin. "Gaur gauzak aldatuko dira! Gaur da eguna!" esaten genon gure buruari.

Heldu zen momentua: elizako kanpaiek arratsaldeko bostetako kanpaiak jo zituzten! Bozkatzeko momentua zen!

Udaletxe sarrerara hurbildu ahala, orduan eta berotasun handiagoa sentitzen genuen! Sekulako beroa eta elkartasuna transmititzen zigun gure alde oihuka zegoen herritar bakoitzak. Udaletxe barruko eskaileretan emakume asko karteekin zeuden, eta euren seme-alaba zein senarrak ere bertan zeuden, irribarretsu laguntzen. Duela lau urteko polizia berdinak eta aurka egiten ziguten asko ere bertan zeuden. Baina oraingoan ez ziguten aurkarik egiten! Batzuk gure alde oihuka ari ziren, eta oihuka ari ez zirenak ere, gutxienez ez ziren gu oztopatzen ari!

Bagenekien gu babesten jendea egongo zela, baina etorrera hori ere ez genuen espero! Denak errazegia zirudien, ezin genuen sinetsi inor ez zegoela gure aurka.

Eta hala izan zen: bat-batean, norbaitek eskutik heldu eta tira egin zidan. Beste batek Margoti hankatik eutsi zion, eta atzera begiratu nuenean, kontra-manifestariak irainka eta bultzaka ikusi nituen. Oraingoan, ordea, askoz gutxiago ziren eta gu gehiago ginen. Hauteskunde-gelan eta eskaileretan zeuden askok aurre egin zieten kontra manifestariei eta hauek bidaltzea lortu zuten.

Eskailerak gora igotzen ari ginela, bertan ikusten genituen hainbat herritar: bizilagunak, herriko dendariak, prentsako langileak... bagindoazen gora! Gure helburua lortzear geunden, denen animo eta oihu artean!

Hauteskunde-gelara hartu eta jada zain geunden gure bozka sartzeko! Margotek eta Kathrinek jada bozkatu zuten, eta segidan Susan eta bion txanda izango zen! Eskutik helduta, elkarrekin bozkatu genuen eta batera sartu genituen gure botoak bozka kutxan, elkarrekin, hasi genuen bezala amaituz.

Une hartan pasa genuen guztian pentsatu nuen, eta hunkituta, malko bat erori zitzaidan aurpegian barrena: begitik behera irten, geldo, sudurretk pasa eta ezpain gainean amaitu zuen. Malko hura izan zen pasatako guztiaren deskribapena: sentimendu asko, momentu txar asko, baina amaiera eder bat.

Udaletxetik laurok eskutik helduta irten gara. Udaletxe plazan dagoen jende pilak sekulako txalo-zaparrada eskaini dugu. Oso maitatuak sentitu gara momentu horretan. Gure bizitzako eta beste askoren bizitzako momenturik garrantzitsuena izan da, ziur nago.

Etorkizunean une hau oso une garrantzitsua izango delakoan nago; honen ondorioz, aurrerapauso asko egingo ditu gizarteak, ziur nago.

Istorio hau hemen amaitzen da, baina oraindik gauza asko gelditzen dira; aurrerapauso asko daude emateko, eta hau ez da hemen amaitzen. Borrokatzen jarraituko dugu berdintasuna lortu arte, guztiok berdinak garelako eta eskubide berdinak izatea merezi dugulako!